



Euskara ikasteko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak.

Azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak, herritarren eskubide gisa aitortzen du euskara jakitea (5. artikulua), eta herri-aginteei ezartzen die eskubide hori ziurtatzeko neurriak hartu beharra (7. artikulua).

Apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, udalei izendatzen die, eskumen propio gisa, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz (7. artikulua).

Bide beretik, azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, zera dio: hizkuntza-arloko udal-eskumen propioa legez bereganatzeak berekin dakarrela hizkuntzaren erabilera dinamizatzeko eta hizkuntza horren ikaskuntza sustatzeko neurriak hartzeko konpromisoa (8.2 artikulua).

Anoetako Udala UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kidea da, eta helburu du neurri aurrerakoiak hartzea euskararen erabilera normalizatzeko eta herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzeko.

Anoetako Udalak oinarriak, irizpideak eta prozedura arautu nahi ditu, euskara ikasten ari diren herritarrei lehiaketa bidez dirulaguntzak emateko. Helburua da herritarrek euskaraz alfabetatzeko eta euskara ikasteko duten eskubidea bermatzea, eta, horretarako, ikaskuntza-gastuak finantzatzea.

Oinarri hauetan aurreikusi ez denari dagokionez, honako hauek aplikatuko dira: Anoetako Udalaren dirulaguntzak arautzeko Ordenantza orokorra, tokiko eta euskarari

Bases específicas para la concesión de subvenciones para el aprendizaje del euskera.

La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, reconoce el conocimiento del euskera como un derecho de la ciudadanía (artículo 5), imponiendo a los poderes públicos la necesidad de adoptar medidas que aseguren dicho derecho (artículo 7).

La Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, atribuye a los Ayuntamientos, como competencia propia, la de promover el conocimiento y dinamizar el uso del euskera en su ámbito territorial, organizando directamente los servicios y actividades para ello, o colaborando en la financiación de las actividades de promoción y dinamización del euskera que realicen otras personas o entidades (artículo 7).

En el mismo sentido, el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, de normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, establece que la asunción legal de la competencia municipal propia en materia lingüística implica el compromiso de adoptar medidas para dinamizar el uso de la lengua y fomentar su aprendizaje (artículo 8.2).

El Ayuntamiento de Anoeta es miembro de la Mancomunidad de Municipios Euskaldunes UEMA, cuyo objetivo es adoptar medidas progresistas para normalizar el uso del euskera y respetar los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

El Ayuntamiento de Anoeta quiere regular las bases, criterios y procedimiento para la concesión de subvenciones mediante concurso a la ciudadanía que esté aprendiendo euskera. El objetivo es garantizar el derecho de la ciudadanía a alfabetizarse y aprender euskera, financiando los gastos de aprendizaje.

En lo no previsto en estas bases, serán de aplicación la Ordenanza General reguladora de las subvenciones del Ayuntamiento de Anoeta, la normativa local y normativa del euskera, y la



buruzko araudia, eta dirulaguntzen araudi orokorra.

Anoetako Udalak, beraz, erabaki du euskara ikasteko dirulaguntzak emateko oinarri hauek onartzea.

1. Xedea.

Dirulaguntza honen helburua da Anoetan erroldatutako herritarrek bultzatzea euskara ikastaroetan parte hartzea; horretarako, Anoetako Udalak dirulaguntzak emango dizkie euskaltegi edo barnetegi batean euskara ikasten ari diren herritarrei.

Diruz lagunduko dira HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak onartutako zentroetan egindako ikastaro presentzialen, autoikaskuntzakoen eta mistoen gastuak, oinarri hauetan zehaztutako baldintzen eta gehienezko kopuruen arabera.

2. Onuradunak.

Baldintza hauek betetzen dituztenek eskatu ahal izango dute dirulaguntza:

- 16 urte edo gehiago izatea.
- Anoetan erroldatuta egotea.
- HABEk onetsitako zentro batean matrikulatuta egotea.
- Gutxienez % 80ko asistentzia-maila izatea.
- Dirulaguntzen onuradun izateko inolako debeku-kausarik ez izatea, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan aipatzen direnak.
- Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Anoetako Udalarekikoak egunean izatea.

Hurrengo ikasturteari begira, euskara ikasi nahi duten herritar guztiek aukera izan dezaten, egoera ekonomiko zaurgarrian dauden herritarren kasuan, matrikula kopuruaren % 100 ordain dezake aurrez udalak, betiere egoera horri buruzko dokumentazioa jaso eta arloko teknikariak aurrez

normativa general de subvenciones.

El Ayuntamiento de Anoeta ha decidido aprobar las presentes bases para la concesión de subvenciones para el aprendizaje del euskera.

1. Objeto.

El objetivo de esta subvención es incentivar a la ciudadanía empadronada en Anoeta a participar en cursos de euskera, para lo cual el Ayuntamiento de Anoeta concederá subvenciones a las personas que estén aprendiendo euskera en un euskaltegi o barnetegi.

Se subvencionarán los gastos de cursos presenciales, de autoaprendizaje y mixtos realizados en los centros reconocidos por el Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos, HABE, en los términos y con los límites establecidos en estas bases.

2. Personas beneficiarias.

Podrán solicitar la subvención quienes cumplan los siguientes requisitos:

- Tener 16 años o más.
- Estar empadronado en Anoeta.
- Estar matriculado en un centro reconocido por HABE.
- Tener un nivel asistencial mínimo del 80%.
- No hallarse incurso en causa de prohibición para obtener la condición persona beneficiaria de subvenciones, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.
- Hallarse al corriente de las obligaciones tributarias, con la Seguridad Social y con el Ayuntamiento de Anoeta.

De cara al curso siguiente, para que toda la ciudadanía que quiera aprender euskera pueda optar a ello, en caso de darse una situación de vulnerabilidad económica, el ayuntamiento podrá adelantar el 100 % del importe de la correspondiente matrícula, en base a la documentación recibida sobre dicha situación y a



egindako balorazioan oinarrituz.

Nolanahi ere, dirulaguntzaren ordainketa aurreratua lortzeko, onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 34.4 artikuluan eta horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 88. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute.

3. Dirulaguntzen bateragarritasuna.

1. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandakoeekin, xedea berbera izanda ere.

2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Horrelakorik gertatuz gero, murriztu egingo da oinarri hauen kargura ematekoa zen dirulaguntzaren zenbatekoa, muga ez gainditzeko.

3. Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak ez dira estatu laguntza, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunak ez baitira jarduera ekonomikoak egiten dituzten enpresak; ondorioz, laguntza horiek ez dira sartzen tratatu horren 108.3 artikuluan aurreikusitako jakinarazpen-prozeduran.

4. Eskaerak aurkezteko behar den dokumentazioa.

Dirulaguntzak eskatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Dirulaguntza eskatzeko eskabidea, eredu normalizatuaren arabera behar bezala beteta. Emantzipatu gabeko adingabeek eta, oro har, administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasunik ez dutenek ordezkari legalaren datuak ere bete beharko dituzte eskabide-orrian.

la valoración previa realizada por el personal técnico del área.

En todo caso, para obtener el pago anticipado de la subvención, los beneficiarios deberán cumplir con lo dispuesto en el artículo 34.4 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, así como en el artículo 88 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de aquélla.

3. Compatibilidad de las ayudas.

1. Las subvenciones objeto de estas bases serán compatibles con aquellas otras que, teniendo el mismo objeto, pudieran ser otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados.

2. En el caso de concurrencia con otras ayudas, el importe total recibido no podrá superar el coste de la actividad subvencionada. En este supuesto, se reducirá el importe de la subvención a conceder con cargo a estas bases para no superar el límite establecido.

3. Las ayudas reguladas en las presentes bases no tienen la consideración de ayudas de Estado, de conformidad con lo establecido en el artículo 107.1 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, puesto que las personas beneficiarias no son empresas que realicen actividades económicas, por lo que dichas ayudas no forman parte del procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 de dicho Tratado.

4. Documentación necesaria para la presentación de solicitudes.

Para solicitar la subvención se deberán presentar los siguientes documentos:

- Impreso de solicitud debidamente cumplimentado según modelo normalizado. Las personas menores no emancipadas y, en general, las personas que no ostenten capacidad de obrar ante las Administraciones Públicas también deberán cumplimentar en el impreso de solicitud los datos de su representante legal.

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> - Onuradun izateko debeku-kausarik ez izatea egiaztatzeko erantzukizunpeko aitorpena, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan aipatzen direnak (eskabide-orriaren bidez). - Bestelako administrazioei eta erakunde publiko edo pribatuei egindako dirulaguntza eskaeren zein jadanik emandako dirulaguntzen gaineko aitorpena (eskabide-orriaren bidez). - Euskaltegiaren ziurtagiria, ikasturteari buruzko informazio honekin: <ul style="list-style-type: none"> A. Eskatzailea zein mailatan hasi zen eta zein maila egiaztatu duen. B. Asistentzia zenbatekoa izan den. C. Ikasleak zer zenbateko ordaindu duen ikastaroko matrikularengatik. - Eskatzailearen kontu korronte zenbakiaren eta titulartasunaren banku-egiaztatzea. Emantzipatu gabeko adingabeek eta, oro har, administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasunik ez dutenek haien ordezkari legalaren banku-egiaztatzea aurkeztu dezakete. - Matrikularen ordainagiria. - Langabezian dauden C1 mailako euskara ikasleek, haien lan-egoera ziurtatuko duen langabetu-agiria. - Egoera ekonomiko zaurgarrian dauden ikasleek, haien egoera edo familiaren egoera egiaztatuko duten agiriak. - Udalak eska dezakeen beste edozein dokumentu. | <ul style="list-style-type: none"> - Declaración responsable de no estar incurso en ninguna causa de prohibición para obtener la condición de persona beneficiaria, a que se refieren los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones (mediante impreso de solicitud). - Declaración relativa a las subvenciones solicitadas a otras administraciones u otras instituciones públicas o privadas. También deberán declararse las subvenciones que ya se hayan recibido (mediante impreso de solicitud). - Certificado del Euskaltegi con la siguiente información del curso: <ul style="list-style-type: none"> A. Nivel en el que inició el curso la persona solicitante y nivel acreditado. B. Porcentaje de asistencia. C. Cuantía abonada por el alumno o alumna por la matrícula del curso. - Certificado bancario del número de cuenta corriente y de la titularidad de la persona solicitante. Las personas menores no emancipadas y, en general, las personas que no ostenten capacidad de obrar ante las Administraciones Públicas podrán presentar el certificado bancario de su representante legal. - Justificante de pago de la matrícula. - El alumnado de euskera de nivel C1 en situación de desempleo, acreditación de su situación laboral. - El alumnado en situación de vulnerabilidad económica, documentación acreditativa de su situación o la situación familiar. - Cualquier otro documento que pueda solicitar el Ayuntamiento. |
|---|---|



Anoetako Udalak, administrazio publiko eskudunei, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo dizkie interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Anoetako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu beste administrazioetan, euskara ikasteko dirulaguntza eskuratu ahal izateko, NISAE datu-bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- Zerga betebeharrak egunean dituela.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela.
- Eskatzailearen NAN edo agiri baliokidea.

Emantzipatu gabeko adingabeen eta, oro har, administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasunik ez dutenen kasuan ez dira datu hauek kontsultatuko: zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

El Ayuntamiento de Anoeta realizará a las administraciones públicas competentes, a través del nodo de interoperabilidad NISAE, las comprobaciones y consultas necesarias sobre los datos puestos a disposición de la Administración por las personas interesadas. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concreta en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elabora dos por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por la persona interesada a cualquier Administración.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de éstas.

En este sentido, el Ayuntamiento de Anoeta va a verificar los siguientes requisitos en otras administraciones, para poder acceder a la subvención para el aprendizaje del euskera, a través de los servicios de la plataforma de intermediación de datos NISAE:

- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.
- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social.
- DNI o documento equivalente de la persona solicitante.

En el caso de personas menores no emancipadas y, en general, personas que no ostenten capacidad de obrar ante las Administraciones Públicas no se consultarán estos datos: hallarse al corriente de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.



Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

Deialdira aurkezteko unean eskatzaileak ez du zorrik izango Anoetako Udalarekin, nahiz eta honi dagokionez, ez den egiaztagiririk aurkeztu behar. Bestalde, dirulaguntza ordaintzeko unean Udalarekin zorra izanez gero, ez da dirulaguntzarik emango.

Udalak berak egiaztatuko du Udal Erroldaren bidez eskatzailea anoetarra den.

5. Eskaera aurkezteko modua eta epea.

1. Bide hauetako edozein erabiliz aurkeztu ahalko da eskaera: erregistro elektronikoa, erregistro-gaietako laguntzarako bulegoak, posta-bulegoak, eta indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritako beste edozein toki.

2. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak eskuragarri egongo dira udalaren egoitza elektronikoan.

3. Urteko deialdian zehaztuko da eskaerak aurkezteko epea.

4. Eskatzaileek ez dituzte aurkeztu beharko jadanik udalaren esku dauden dokumentuak, urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, se podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.

La persona solicitante en el momento de presentar la solicitud no deberá tener deudas con el Ayuntamiento de Anoeta, a pesar de que no deberá presentar ninguna justificación al respecto. En aquellos casos en los que haya deudas para con el Ayuntamiento, no se concederá ninguna subvención.

El requisito de ser vecino o vecina de Anoeta lo acreditará el propio Ayuntamiento mediante el Padrón Municipal.

5. Forma y plazo de presentación de la solicitud.

1. La solicitud podrá presentarse por cualquiera de los medios siguientes: registro electrónico, oficinas de asistencia en materia de registros, oficinas de correos y cualquier otro lugar establecido en las disposiciones legales vigentes.

2. La información de cada convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la sede electrónica del Ayuntamiento.

3. El plazo de presentación de solicitudes se determinará en la convocatoria anual.

4. Las personas solicitantes no tendrán que presentar los documentos que ya obren en poder del Ayuntamiento, de conformidad con lo previsto en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

5. Dirulaguntza eskaera aurkezteaz bat, eskatzaileak aitortuko du betetzen dituela deialdian ezarritako baldintza guztiak, eta osotasunean onartzen dituela oinarri hauek. Halaber, adieraziko du eskabidean ageri diren datu pertsonalak bere baimenarekin hartu direla, eta baimentzen duela datu horiei trataera automatizatua ematea; era berean, onartuko du datu horiek sartzea behar bezala baimendutako udal-fitxategietan. Datu horiek erabiltzeko baimena emango du, baldin eta erabilera hori udal kudeaketara mugatzen bada.

6. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea.

1. Eskaeran edo horrekin batera doan dokumentazioan ez badira ageri identifikazio datuak, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari hamar eguneko epea emango zaio akats horiek zuzentzeko, urriaren 1eko 39/2015 legearen 68. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Epe horretan akatsak zuzendu ezean, uste izango da eskatzaileak uko egin diola, eta artxibatu egingo da, beste tramiterik egin gabe.

2. Udalak beharrezko irizten dion informazio osagarria eskatu ahal izango die eskatzaileei eskabidean adierazitakoa egia dela ziurtatzeko.

7. Dirulaguntzak emateko prozedura.

1. Lehiaketa bidez emango dira dirulaguntzak.

2. Ofizios hasiko da laguntzak emateko prozedura, deialdi publiko baten bidez. Deialdia organo eskudunak onartuko du, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da.

3. Abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikulua betez, emandako dirulaguntzak argitaratu egin beharko dira Anoetako Udalaren Gardentasun Atarian eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean, zenbatekoa, helburua edo xedea eta onuradunak adierazita.

5. En el momento de presentar la solicitud de subvención, la persona solicitante declarará que cumple con todos los requisitos establecidos en la convocatoria y que acepta en su integridad las presentes bases. Asimismo, indicará que los datos personales que figuran en la solicitud han sido tomados con su consentimiento y que autoriza el tratamiento automatizado de los mismos, así como su incorporación a ficheros municipales debidamente autorizados. Autorizará el uso de estos datos siempre que dicho uso se limite a la gestión municipal.

6. Subsanación de errores y aportación de documentación complementaria.

1. Si en la solicitud o documentación que la acompañe no constan los datos de identificación, si adoleciera de algún defecto o falta, se requerirá a la persona solicitante para que en el plazo de diez días subsane los mismos, de conformidad con lo establecido en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre. Transcurrido dicho plazo sin haber procedido a la subsanación, se presumirá que la persona solicitante ha renunciado a la misma, archivándose sin más trámite.

2. El Ayuntamiento podrá requerir a las personas solicitantes cuanta información complementaria considere necesaria para asegurar la veracidad de lo expresado en la solicitud.

7. Procedimiento de concesión de subvenciones.

1. Las subvenciones se concederán mediante concurso.

2. El procedimiento para la concesión de las ayudas se iniciará de oficio mediante convocatoria pública. La convocatoria será aprobada por el órgano competente y se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la Base de Datos Nacional de Subvenciones.

3. En cumplimiento del artículo 8 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, las subvenciones concedidas deberán publicarse en el Portal de Transparencia del Ayuntamiento de Anoeta y en la Base de Datos Nacional de Subvenciones, con indicación de la cuantía, objeto o finalidad y beneficiarios.

4. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdia iragarki-
taula digitalean eta udalaren webgunean
argitaratuko da. Nolanahi ere, udalak oinarri horien
eta gainerako argitalpenen berri emango du
egokitzen jotzen dituen bitartekoak erabiliz.

8. Dirulaguntzen zenbatekoa.

1. Honako irizpide hauek erabiliko dira
dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko,
Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoari
erreparatuz:

- A1, A2, B1, B2 mailak: matrikularen %100eko
dirulaguntza, 900 euroko gehienezko mugarekin.
- C1 maila: matrikularen %80ko dirulaguntza, 500
euroko gehienezko mugarekin.

Salbuespen hauek ezarriko dira, betiere gehienezko
muga errespetatuz:

- Langabezian dauden C1 mailako euskara
ikasleek matrikularen %100eko dirulaguntza
jaso ahal izango dute, baldin eta langabezia
egoera egiaztatzen badute.
- Egoera ekonomiko zaurgarrian dauden C1
mailako euskara ikasleek matrikularen
%100eko dirulaguntza jaso ahal izango dute,
baldin eta ikasle horiek edo haien familiek
egoera egiaztatzen badute.
- C2 maila: ez da diruz lagunduko C2 mailako
ikastarorik.

2. Dirulaguntzen zenbatekoa ezingo da inoiz izan
ikastaroaren edo jardueraren kostua baino
handiagoa.

3. Ez da diruz lagunduko barnetegiko egonaldiari
dagokion gasturik.

4. Ikasleak ez du dirulaguntzarik jasoko ez badu
ikasturtea behar bezala amaitu, %80ko gutxieneko
asistentziarekin.

4. De conformidad con lo establecido en el
artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de
octubre, la convocatoria se publicará en el tablón
digital de anuncios y en la página web municipal.
En todo caso, el Ayuntamiento dará cuenta de
estas bases y demás publicaciones por los medios
que estime oportunos.

8. Cuantía de la subvención.

1. La cuantía de las subvenciones se calculará de
acuerdo con los siguientes criterios, atendiendo al
Marco Europeo de Referencia para las Lenguas:

- Niveles A1, A2, B1, B2: subvención al 100% de
la matrícula con un límite máximo de 900 euros.
- Nivel C1: subvención del 80% de la matrícula
con un límite máximo de 500 euros.

Se establecerán las siguientes excepciones,
respetando en todo caso el límite máximo:

- El alumnado de euskera del nivel C1 en
paro que acredite una situación de
desempleo podrá recibir una ayuda del 100%
de la matrícula.
- El alumnado de euskera del nivel C1 en
situación de vulnerabilidad económica podrá
recibir una subvención del 100% de la
matrícula, siempre que dicho alumnado o
sus familias acrediten la situación.
- Nivel C2: no se subvencionarán cursos del
nivel C2.

2. En ningún caso el importe de las subvenciones
podrá superar el coste del curso o actividad.

3. No se subvencionarán gastos relativos a la
estancia en régimen de “barnetegi”.

4. El alumno o alumna no percibirá subvención
alguna si no ha finalizado el curso de forma
satisfactoria, con una asistencia mínima del 80%.



Hurrengo ikasturteko matrikula-kopuruaren %100 Udalak aurrez ordaintzea eskatu duten eta egoera ekonomiko zaurgarrian dauden herritarren kasuan, ikasturtea ez badute behar bezala amaitzen, asistentzia-mailaren barruan, aurreratutako kopuru hori itzuli egin beharko diote Udalari, salbuespenak salbuespen (ikus 13. artikulua).

5. Irizpide hauek guztiak urteko aurrekontuetan zehaztutako kopuruen menpe egongo dira. Kopuru horiek ez badira nahikoa jasotako eskaera guztiei erantzuteko, dirulaguntzak proportzioan gutxituko dira, lehentasuna emanez A1, A2, B1, B2 mailetako ikasleei, egoera ekonomiko zaurgarrian daudenei eta langabetuei.

9. Dirulaguntzaren zenbatekoa ezohikotasunez handitzea.

1. Dirulaguntza deialdian, salbuespen gisa, gehieneko zenbatekoaz gain, ezarri ahal izango da zenbateko gehigarri bat ere, eta ez da dirulaguntzak emateko deialdi berririk egin beharko.

Zenbateko hori finkatzeko eta erabiltzeko, ezinbestekoa da aurreikustea deialdia egiten den unean erabilgarri ez dauden kredituetatik datozen zenbateko gehigarriak erabilgarri egotea emakida-ebazpena eman aurretik, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 58.2 artikuluan zehaztutako egoeretako baten ondorioz kredituak handitzearen mende dagoelako.

Dirulaguntza ematen duen organoak laguntza emateko ebazpena eman baino lehen argitaratu behar ditu kreditu erabilgarrien aitorpena eta behin betiko banaketa, deialdiaren bitarteko berberetan. Deialdi horrek ez dakar berekin eskabide berriak aurkezteko epea irekitzea edo ebazpena emateko epe berria hastea.

En el caso de ciudadanos en situación de vulnerabilidad económica que hayan solicitado el pago anticipado por parte del Ayuntamiento del 100% de la matrícula del curso siguiente y que no finalicen satisfactoriamente el curso, dentro de los niveles de asistencia, deberán devolver al Ayuntamiento la cantidad anticipada, salvo excepciones (ver artículo 13).

5. Todos estos criterios estarán sujetos a las cuantías que se determinen en los presupuestos anuales. Si estas cantidades no fueran suficientes para atender todas las solicitudes recibidas, las subvenciones se reducirán proporcionalmente, dando prioridad al alumnado de los niveles A1, A2, B1, B2, al que se encuentra en situación de vulnerabilidad económica y de desempleo.

9. Incremento excepcional de la cantidad de la subvención.

1. Excepcionalmente, en la convocatoria subvencional podrá establecerse, además de la cuantía máxima, un importe adicional, sin necesidad de nueva convocatoria para la concesión de subvenciones.

Para la determinación y disposición de este importe es imprescindible prever la disponibilidad de cantidades adicionales procedentes de créditos no disponibles en el momento de la convocatoria con carácter previo a la resolución de concesión, al estar sujeta a una ampliación de créditos derivada de alguno de los supuestos previstos en el artículo 58.2 del Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.

La declaración de créditos disponibles y su distribución definitiva deberán ser publicadas por el órgano concedente con carácter previo a la resolución de concesión de la ayuda, por los mismos medios que la convocatoria. Esta convocatoria no implica la apertura del plazo de presentación de nuevas solicitudes o el inicio del nuevo plazo de resolución.

2. Deialdi irekia: deialdi irekiak, oinarri hauetan ezarritako betekizun orokorreaz gain, elkarren segidako ebazpenen kopurua ezarri beharko du, eta horietako bakoitzerako zehaztu beharko ditu uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 59. artikulua eskatzen dituen alderdiak.

Aldi baten amaieran dirulaguntzak eman badira eta eman beharreko gehieneko zenbatekoa ez bada agortu, aplikatu ez den zenbatekoa ondorengo emakida-ebazpenetara aldatu ahal izango da. Horretarako, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 59.5 artikuluan adierazitakoaren arabera, erabili gabeko funtsak esleitzeko jarraitu beharreko irizpidea da soberakina zati berdinetan banatzea gainerako aldien artean.

10. Prozedura bideratzeko, instrukzioa egiteko eta ebazteko organo eskudunak.

1. Dirulaguntza emateko prozeduraren instrukzioa egitea Euskara Zerbitzuari dagokio.

2. Euskara Zerbitzuak aztertuko ditu eskabideak, eta haiek baloratzeko txostena eta ebazpen-proposamena egingo ditu. Proposamen horretan zehaztuko du egindako ebaluazioaren emaitza, eta organo eskudunari helaraziko dio, onar dezan. Halaber, Euskara Zerbitzuak eskumena izango du egokiak ikusten dituen salbuespenezko kasu bereziak aztertzeko eta kasu berezi bakoitzari egokitutako proposamena egiteko.

3. Alkateak izango du oinarri hauetan jasotako dirulaguntzak ematea ebazteko eskumena.

4. Hiru hilabetekoa izango da dagokion ebazpena emateko, argitaratzeko edo jakinarazteko gehieneko epea. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatuko da epe hori, salbu eta deialdiak ondorioak atzeratzen baditu.

5. Epe hori igaro eta ez bada ebazpena jakinarazi

2. Convocatoria abierta: la convocatoria abierta deberá establecer, además de los requisitos generales establecidos en estas bases, el número de resoluciones sucesivas, especificando para cada una de ellas los aspectos exigidos por el artículo 59 del Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.

En el caso de que al final de un periodo se hayan concedido subvenciones y el importe máximo a conceder no se haya agotado, el importe no aplicado podrá ser modificado a posteriores resoluciones de concesión. A tal efecto, y de acuerdo con lo señalado en el artículo 59.5 del Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, el criterio a seguir para la asignación de fondos no utilizados es el de distribuir el excedente a partes iguales entre el resto de periodos.

10. Órganos competentes para la instrucción del procedimiento, instrucción y resolución.

1. La instrucción del procedimiento de concesión de la subvención corresponderá al Servicio de Euskera.

2. El Servicio de Euskera analizará las solicitudes y elaborará el informe de valoración y la propuesta de resolución. En dicha propuesta detallará el resultado de la evaluación realizada y la elevará al órgano competente para su aprobación. Asimismo, el Servicio de Euskera será competente para analizar los casos excepcionales especiales que considere oportunos y realizar una propuesta adecuada a cada caso particular.

3. El Alcalde será el órgano competente para resolver la concesión de las subvenciones contempladas en las presentes bases.

4. El plazo máximo para dictar, publicar o notificar la resolución que corresponda será de tres meses. Este plazo se computará desde su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, salvo que la convocatoria retrase sus efectos.

5. Transcurrido dicho plazo sin haberse



edo argitaratu, interesdunek ezetsitzat jo ahal izango dute eskabidea administrazio-isiltasunez.

11. Onuradunen betebeharrak.

1. Honako betebeharrak orokor hauek dituzte dirulaguntzen onuradunek:

- Dirulaguntzaren xede den jardueraren bete-betean burutzea.
- Dirulaguntza zertarako eman den, horretarako erabiltzea.
- Oinarri hauetan zehaztutako erakundeak aurkezteko justifikazioak.
- Dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jarduketari men egitea, bai eta kontrol-organoren eskudunek egin ditzaketen egiaztapen eta finantza-kontrolak beste edozein jarduketari ere, eta aurreko eskatzen zaion informazio guztia ematea.
- Dirulaguntza ematen duen organoari jakinaraztea, diruz lagundutako jardueraren finantzatzeko beste dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide lortuz gero. Jakinarazpen hori laguntza jasotzearen berri izan orduko egin beharko da, eta, nolatan ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

2. Deialdiak ezar ditzake beste betebeharrak espezifiko batzuk.

12. Dirulaguntzen ordainketa.

Dirulaguntzak ematea Alkatetzaren Dekretu bidez ebatzi ondoren, hilabeteko epean egingo da dirulaguntzaren ordainketa, dirulaguntza ematen den egunetik zenbatzen hasita. Ordainketa behin bakarrik egingo da, interesdunak emandako kontu korrontera banku-transferentzia eginez. Kontu korronte hori hirugarrenen fitxan jasoko da.

13. Dirulaguntzak itzultzea

notificado o publicado la resolución, los interesados podrán entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

11. Obligaciones de las personas beneficiarias.

1. Las personas beneficiarias de las subvenciones tienen las siguientes obligaciones generales:

- La realización plena de la actividad objeto de subvención.
- Utilizar la subvención para el concreto fin para el que ha sido concedida.
- Presentar las justificaciones en la forma que se especifica en las presentes bases.
- Someterse a las actuaciones de comprobación a realizar por el órgano concedente, así como a cualquier otra de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, facilitando cuanta información le sea requerida.
- Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ingresos o recursos para la financiación de la actividad subvencionada. Esta comunicación deberá realizarse en el momento en que se tenga conocimiento de la percepción de la ayuda y, en todo caso, con carácter previo a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

2. La convocatoria podrá establecer otras obligaciones específicas.

12. Pago de las subvenciones.

Una vez resuelta la concesión mediante Decreto de Alcaldía, el pago de la subvención se realizará en el plazo de un mes a contar desde la fecha de concesión de la misma. El pago se realizará una sola vez mediante transferencia bancaria a la cuenta corriente facilitada por la persona interesada. Esta cuenta corriente se reflejará en la ficha de terceros.

13. Reintegro de las subvenciones.

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 36. eta 37. artikuluetan aurreikusitako kasuetan, bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak itzultzea eta dirulaguntza ordaintzen denetik itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesa eskatzea.

2. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen II. tituluko II. kapituluaren eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduaren III. tituluko II. kapituluaren ezarritako xedapenak arautuko dute dirulaguntzak itzultzeko prozedura.

3. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.n) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honako irizpide hauek zehazten dira dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko, kasu bakoitzean itzuli beharreko ehunekoekin:

- Baldintzak faltsutuz edo ezkutatuaz lortzea: %100.
- Bertaratzeko edo ordaintzeko betebeharra ez betetzea: %100.

Nolanahi ere, hurrengo ikasturteko matrikulakopurua Udalak aurrez ordaintzea eskatu duten eta egoera ekonomiko zaurgarrian dauden herritarrak dirua itzultzeaz salbuetsita egongo dira ondoko kasuetan:

- a. Ikasleren batek, lanean hasi eta, ordutegia dela-eta, ez badauka euskaltegiara joaterik, baldin eta lanean hasi den enpresaren ziurtagiriaren bidez egiaztatzen badu (kontratatzaileraren sinadura edo enpresaren zigilua beharrezkoa da).
- b. Gaixotasun luzea izan badu, baldin eta mediku-ziurtagiri ofizial bidez egiaztatzen badu eskoletara joateko ezintasun larria duela.
- c. Haurdunaldia, baldin eta medikuaren txosten bidez egiaztatzen badu atseden osoa hartu behar duela.

1. En los supuestos previstos en los artículos 36 y 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, procederá la devolución de las cantidades percibidas y la solicitud del interés de demora desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro.

2. El procedimiento de reintegro de las subvenciones se regirá por las disposiciones establecidas en el Capítulo II del Título II de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, y en el Capítulo II del Título III del Reglamento aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.

3. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 17.3.n) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, se establecen los siguientes criterios para la graduación de los incumplimientos de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con los porcentajes a reintegrar en cada caso:

- Obtención mediante falsificación u ocultación de condiciones: 100%.
- Incumplimiento de la obligación de asistencia o pago: 100%.

En todo caso, la ciudadanía en situación de vulnerabilidad económica que hayan solicitado el pago anticipado por parte del Ayuntamiento del importe de la matrícula del curso siguiente estarán exentos de reintegro en los siguientes casos:

- a. Cuando un alumno o alumna se incorpore al trabajo y por razones horarias no pueda acudir al euskaltegi, siempre que lo acredite mediante certificado de la empresa en la que se ha incorporado (es necesaria la firma del contratante y el sello de la empresa).
- b. Enfermedad prolongada que acredite mediante certificado médico oficial la incapacidad grave para asistir a clase.
- c. Embarazo, siempre que se acredite mediante informe médico la necesidad de reposo completo.



- d. Amatasuna, baldin eta euskaltegi klaseetara egokitzerik ez badauka eta haurtxoaren zaintza egokia egiteko laguntzarik ez badauka.

14. Araudi aplikagarria

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak arautuko dituzte, oinarri hauetan xedatutakoaz gain, Anoetako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako garapen-erregelamenduak, eta dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko gainerako arauak.

- d. Maternidad, siempre que no pueda adaptarse a las clases del euskaltegi y no cuente con ayuda para realizar el cuidado adecuado del bebé.

14. Normativa aplicable

Las subvenciones objeto de estas bases se regirán, además de por lo dispuesto en las mismas, por la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Anoeta, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, y demás normativa de aplicación en materia subvencional.